

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak Estatuari beharko zuena baino diru gehiago ematen dio, 100 eta 250 milioi artean, Ogasunak egindako azterketa baten arabera

Foru Gobernuak gai hau Estatuarekin negoziatu beharra duela azpimarratu du, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordearen barnean

Astelehena, 2016.eko urriak 10


Nafarroak Estuari ekarpen ekonomiko modura eman beharko ziona baino diru gehiago ematen dio, 100 eta 250 milioi artean, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak egindako azterketa baten arabera. Azterketa hori Departamentuko titular Mikel Aranburuk aurkeztu du gaur goizean.

Azaldu duenez, une hauetan, Nafarroako Gobernuak aurretik duen erronka nagusietako bat Hitzarmen Ekonomikotik sortutako finantza-harremanak eguneratzea da 2015-2019 bosturtekoari begira, ikusirik zer-nolako garrantzia duten Foru Komunitateko autonomia fiskalaren ikuspegi batetik eta finantza-fluxu horiek Nafarroako Aurrekontu Orokorretan duten eragin handiagatik. Horregatik, Aranburu kontseilariak gai hori Estatuarekin negoziatu behar dela azpimarratu du, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordean.

Azterketa

Egindako azterketak zehaztasunez analizatzen ditu Nafarroako ekarpen ekonomikoari lotutako parametro guztiak eta Estatuarekiko doitzeko fiskal guztiak, negoziaketa horri aurre egiteko helburuarekin, zorroztasunean, leialtasunean eta erantzukizunean oinarrituz.

Hala, Nafarroak bere gain hartutako kargen balorazioa aztertu da, inputazioaren indizea, konpentsazioak eta beste akordio batzuk



Nafarroak Estatuari beharko zuena baino diru gehiago ematen dio, 100 eta 250 milioi artean.

(Poliziarena adibidez), ISEren konpentsazioa, mendekotasuna eta osasuna. Nafarroak bere gain hartutako balorazioan bakarrik Estatuko aurrekontuen 350 programatik gora aztertu dira.

Azterketako ondorio garrantzitsuenetariko bat da, Gobernuarekin ikuspegitik 2015-2019 oinarri-urteari aplikatu dakiokeen ekarpen likidoaren zifra; bi egoera ezartzen dira: Nafarroarako onuragarriena 341 milioikoa izango zen, eta bestea, 494 milioiren azpitik.

Urkila zabal hori azaltzen da Estatuarekin negoziatzeko tartean egon daitezkeen hainbat parametroengatik, eta baita Nafarroak Ministeriotik informazioa jaso behar duelako zenbait kalkulu era zehatzagoan ezartzeko. Foru Gobernuak dagoeneko Madrilera helarazi zituen kalkulu batzuk dira negoziaketak lehenbailehen has daitezkeen. Bosturtekoaren eguneratzeak Hitzarmenaren Koordinazio Batzordearen barnean adostu behar dira, bi administrazioetako ordezkariak osatzen dutena. Nafarroako Gobernuak bere borondatea erakutsi du batzorde hori ahalik eta bizkorren bil dadin eta, hala, akordio egoki bat itxi ahal izateko; alde horretatik, beharrezko jarduerak hasi ditu, baina horiek zaildu egiten dira Espainiako Gobernuaren bitarteko izaera luzatzen ari dela ikusita.

Beste zenbait indize

Doitze fiskalak ere berrikusi dira (hau da, zerga bakoitzerako kontsumoko eta kudeaketako indizeak eta BEZaren kasu berezia). Apirilean azpibatzerde teknikoak eratu zen honako helburu honekin: ekarpena zehaztu aurreko lanak aurreratzea, eta ondoren, Ministeriora aztertu beharreko parametroen gidoi tekniko bat bidali zen, azterketa honetan ere adierazten diren gaiak.

Gogora ekarri behar da, Nafarroako Estatuari egin beharreko ekarpena erabakitzeke metodologiak beste autonomia erkidego batzuekiko elkartasun-mekanismoak kontuan hartzen dituela, bereziki Nafarroako lurralde arteko konpentsazio-funtsari egiten dion ekarpenaren bidez, eta hitzarmenaren mandatuaren bidez, hau da, ekarpena errenta erlatiboaren arabera egingo dela eta ez biztanleriaren arabera.